LAGUN GAITZAZU ARTELANAK ZAINTZEN!

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea
- **Gradua/k:**
  Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Sarriena auzoa, z/g, Leioa (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Batxilergoko eta irakaskuntza artistikoetako ikasleentzat egindako Jarduera Praktikoe
n proposamen honen helburua da graduaren ikuspegi hurbila eskaintzea Arte Ederren Fakultatean ikasi nahi duten, baina oraindik ere gradua zehazteke duten ikasleei. Horrela, unibertsitateko etorkizuneko prestakuntza aukeratzen lagunduko dien informazio baliagarria jasoko dute.
Asmoa da ikasleei erakustea kontserbazio eta zaharberritzearen arloa diziplina anitzekoa dela, non historiak, arteak eta zientziak bat egiten duten.

2. LANDUKO DIREN GAIAK/EDUKIAK

Kultur Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritze Graduari dagokion jarduera praktikoan, ondarearen kontserbazioa eta eskuhartzerako arruntak eta beharrezkoak diren kasu praktikoak eta errealak erakutsiko dira, eta ikasleek ohiko prozedura batzuk esperimentatuko dituzte praktika aktiboen bidez. Praktika horiei esker, ikasleek kontserbatzaile-zaharberritzailearen lanbide-profila, funtzioak, espezializazio-arloak eta lanbide-irteerak ezagutu ahal izango dituzte.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Bi talde sortuko dira, eta ikasleek aukera izango dute kultura-ondasunen kontserbazioari buruzko materialekin, metodologiekin eta esperientziekin esperimentatzeko, titulazioaren ezaugarrien berri izateko.

1. JARDUERA: ***Irudien berrintegrazioa***.
Zaharberritze arloan ohikoa den prozedura, margolan bat kaltetuta dagoenean, irudiaren osotasuna eta ulerpena berreskuratzeko egiten den esku-hartzea. Kasu honetan, postal batzuen bidez hutsarteak bete eta akuarelekin berrintegratu behar dira *rigatino* teknika erabiliz.

2. JARDUERA: ***Prebentziozko kontserbazioa***
Kontserbazioaren sailean, arlo museologikoarekin erlazionatuta, hain ezagunak ez diren enbalajeen sortzea planteatzen da. Enbalaje hauek artelanak babesteko, biltegiratzeko eta museoetara bidaltzeko erabiltzen dira. Beraz, praktika honetan ikasleek enbalaje bat sortuko dute pieza bat babesteko.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2027-01-21	Euskara	Goizez	10:00-13:00	20
2027-01-21	Gaztelania	Goizez	10:00-13:00	20